



LESAKA  
gara

2021-07-01

## Lesakako Udalaren oharra herritar guziei

Hurbiltzen ari dira hainbertze maite ditugun datak, baina aurten ere COVID19-ak eragindako osasun krisiak ez du ahalbideratzen herriko bestak normaltasunez ospatzera. Hau dela eta, bigarren urtez jarraian bertan behera uztea erabaki zuen udal honek, aho batez, osoko bilkuran.

Nahiz eta egoerak nabarmen hobera egin, eta argia ikusten hasi, bestetan hain ohikoak diren jende pilaketak ekiditea da oraindik eginbehar garrantzitsuenetako bat. Hau guzian ardura da.

Ilido honetan, hurrengo adierazpena egitea erabaki dugu udalbatza osoak:

- Ez da inolako ekitaldi ofizialik izanen.
- Herritarrei segurtasunarekiko dugun konpromezuarekin jarraitzea dei egiten dizuegu, osasunean adituak direnen aholkuak jarraituz ardura osoz.
- Ekitaldi berezirik ez antolatzea eskatzen dugu bizi dugun osasun egoeragatik. Hauek jende pilaketa eragin dezakete momentuan edo ondorenean. Horrelako jarrerak ez ditugu inolaz ere babestuko.
- Guztiz debekatua izanen da herri eremuan kanpinak jartzea.

Kanpoko jende aunitz etorri ohi da guregana bisitan egun seinlatu hauetan, eta ederra da gure herriarentzat. Baina, erran bezala, gauzak desberdin bizitzea tokatzen zaigu aurten ere.

Ulertuko duzuelakoan, jaso udal honen agurrik beroena.